

IKURIN GORDEA ⁽¹⁾

Ezin aitzu nolako naigabez eskutatu bea' izan gendun euzko-ikurin maitea 1923'ko Agofaren larunbat-afatsalde baten.

Efiko agintari bakaltzale euzkotar Euzkadi'ren arerioak, poz-pezoz jo-arazi zuten gure ikurina eragozten suan agintzoyua, ta etziran gutxi euzko-abeftzaliენტat agintari ankerak zekafen zigofa ikusita, iripar zitela egin zigutenak. ¡Aben poza! ¡Gure burua-berea!

¿Noiz arte eskutan euki bea'ko gendun ain maitez zabaldu ta erakusten gendun Aberiaren ikurina? ¿Noiz beriz txalotu gure biotza gardez kementzen zuan ikurin zuri-gofi-orlegia? ¿Noiz arte, noiz arte?

Eta gorde-gordea gelditu zan, kendu nai zigute-nak beñere arkitu ezingo zuten toki eskutuan, abeftzale zintzo baten ardurapean.

* * *

Ez gendun, baña, beñere itxaropenik galdu. Bazitekan gerora gure ikurin maitea beñere baño garailago azaldu ta jaso al izatea. Itxaropen onek amesa zirudin, baña benetan sendotzen gihuzen, eta agerian eraman ezin gendunez, beñere baño zintzuago edatu gendun gure biotzaren baruan.

Biotzaren erdian gordea baño bere margo zuri-gofi-orlegiak soin guzian ezagun nunbait. Neri beintzat ori gertatzen zitzaidan.

Bazirudin nere egipen eta nere izate guziak margo oyek bizi-bizi azaltzen zitula; beintzat arerioak ofela ikusten zizkidaten.

Naiz eta emakume argala izan, naiz eta emakumeoi dagokigun mugetatik at beñera irten ez, naiz eta beste emakumeak oi etzuten eraz ezertan ere azaldu ez, ez dakit zer neukan baña, ni joan toki guzian, egiten nitun gauz guzietara, ikurin debekatuaren albiztari zalatua izaten nintzan.

Gauz onek malko saminak ixuri arazi zizkidan bein baño geyagotan, baita pafe arazi ere beste askotan, eta beti nerean sendotu.

Bein, beste andre nere adizkide batzukin batean, mixio-egun oyetako ibildeuna antolatzeke arazona artu bea' izan nuan.

Oi bezela ari giñan ume-taldeak sinismen-gabien endak irudituz jantzitzeko lanetan, baña beti oi dira

bestek ez duana egiten zale diranak, eta bere alabaxua España lateria irudituz onen ikurina'ren margo jantzitzeko eskatuaz auzkeztu zitzaidan emakume bat.

—Zuk ez dakizu zer eskatzen dezun—erantzun nion— onetaiko ibildeunetan jaun-sinismenaren ar-girik ez duten abendeiak iruditzen ditugu. ¿Ez dakizu ba zuk nai dezuna egitera ezkerro, España pafegafia atarako gendukela?

Baziran gure artean emakume ofen eskea ontzat artu zutenak, eta berak zesana egiteko gertu zeudenak, baña nik ezetz. Eta neureakin irten nuan.

Bazirudin ba, España aldekatu egin nuala, baña ikurin zuri-gofi-orlegiaren margoak onetan ere arkitu zituzten nigan. Bai zalatu ere.

Bere eskutuak alkañen gañian kurutzetuta erakutziaz, efiko epaikari bakaltzaleak amofu biziz erazo zidan:

—Onelantxe, lotuta gorde -zibil biren erdian espexera eraman araziko zaitut.

Bildur gabe gelditu nintzan espexalduko nindun agindu pafegafi ofen zai. Baña bai arerioak abeftzaliiei diguten amofua ain mingafi neugan nabaituta, lenaz gañera neurean sendotu ere.

¿Noiz ikusiko ote nuan beriz ere ageriaz jasota, euzko-ikurin maitea? ¡Poz-pezoz txalotuko nuan!

* * *

Ustekabean egun oroigafiak zabaltzen zaizkigu gure bizitz lenpetsu onetan ete ofela izan zaigu igarodan joñailaren 14'a.

Afatzaldea zan. Efi guzia urduri zebilen España'n E'republikaren askundeia egin zala-ta, itsumustuan zer zanik befi gabe. Ni ere nere etxaldean urduri. Eguardian abeftzale adizkide baten mofoyak, nagusiaren bidalduz, nola-nai ebakitako ingi zatitxo zimur bat eskuetara eman zidan, agindu onekin:

—Zure anayari eman.

Ezin ba utzi irakufi gabe ingi zatitxo zimurak zesana: "Euzkotaren ordua eldu da".

Bai ote? galde nion nere buruari. Augatik afatzaldean nere etxaldean urduri nintzan ¿Zer gertatuko ote zan?...

Banekian euzko-ikurin maitea bere gordelekutik atera zutela... ta Udaletxean bertan jaso nai zutela. Baña egiz, ala baztertu arazi zuten ikurina efiko etxe-nagusian azaltzeke atarako ote zan ba? ¿Amesetan ote nengon?

Bazijoan efiko enparantzan, Udaletxearen afean, efiko gizonezko guzia biltzen. Neretzat guziak ezagunak, baña guzi oyek ez nitun abeftzale bezela eza-

(1) Tene ospetsuba agertzen yaku emen, gure pozkatirako. Aspaldijon ixil-samañ eguan nekatilla jeltzale-adoretzu au ta orain bañero asten da EUZKERA'rako idasten.

Esan-biañik etzago, Tene'ren lanakin asko postuko dirala gure irakufiak.

¡Ondo etofi, aspaldiko!

G A Z I - G A Z A K CUADRO DE HONOR

OSAGILIAREN ETXIAN

Itxaroten dagozanai, osagiliak, ifaunduten dautse:

—¿Nor ete-dago luzaruago itxoten?

—Neu —erantzuten dautso jostun batek— ointxe dira, ba sei ilabete janzkija egin neutzunetik eta ondino eztaustazu ordaindu (pagau).

* * *

Anton mozkoñtija gexorik dago-ta, osagiliari dei egiteko esan eban. Onek agindu eutson osakai bat arzteko, ta ondo ezautzen ebalako, onelan esan eutson:

—Osakai (botika) au aftu egixu ardaun dalakuan.

—Bai, jauna —mozkoñtijak erantzuten dautso—, erdaun aftuko dot osakaya dalakuan, ¿bai?... ta kiñu.

* * *

EPAIKARIJAREN AURIAN

Epaikarijak:

—Zeuk diñhoskuzun legez, mozkoñtuta zenguan so-neko au ostu zebanian.

Lapufak:

—Bai, jauna, olan ixan zan, enekijan zer egifen neban-eta.

Epaikarijak:

—¿Eta ori zelan erakusten dauskuzu?

Lapufak:

—Gutziz efaza da ori erakustia. ¿Uste-do zu so-neko zar ori ostuko nebanik, mozkoñtuta egon-ezik?

G A N E K O.

1931-Oñila'n.

gutzen lenago. Enparatzatik aldenduta, bestien artefik igesi, bastertxo baten, gizon mordozka txiki bat: betiko arerioak.

Bereala guzien artean euzko-ikurña agertu zan, norbaitek Udaletxera zeramala. Baita gizon talde izugafia ikurña inguratuz berea zaitzen bezela. Unetxo bat... ikurña Udaletxeko leyoan azaldu zuten... baita bertako makilan lotzen ekin ere... ¡Nere keska! ¡nere yorana unetxo labur-labur artan! Guziek ixilik... ¿Zer egingo ote zuan notintza guzi arek euzkoen ikurñin egizkoa jasotzean? ¿Goratu, txalotu, edo txisto-jo? ¡Ura unetxo laña! ¡Nere keska!... Eta... ikurña goyan lotu zutenakin bat, ¡¡¡Gora Euzkadi!!! kementsu bat entzun zan. Baita notintza izugafiak txalo joaz ¡¡¡Gora!!! gogotsu bat erantzun ere.

Baña ustekabeko garaipen gogoangafi au ikusita, pozaren-pozez kemenak galduta, nerau gelditu nintzan txalo jo gabe. Aiztu egin zitzaidan.

T E N E.

E U Z K E L - I X E N A K

TXABER, KEPA IMANOL, hijo de don Jesús de Laritiegil y de doña Casilda de Mikelarena, de Barakaldo.

* * *

MIREN KARMELE, hija de don José Alvarez y de doña María Luisa de Bilbao, de Bilbao.

* * *

MIREN ITZIAE, hija de don Ignacio de Agirre y de doña Marina de Gandarias, de Bilbao.

* * *

JON, hijo de don Juan de Garaizabal y de doña Martina de Izaeta, de Eibaf.

* * *

LORE, hija de don Tomás de Arieta y de doña María de Aritzaga, de Eibaf.

* * *

MIREN IGONE IXIDORE, hija de don Saturnino de Mardaras y de doña Adela de Garai, de Getxo.

* * *

JOSEBE, hija de don Ignacio de Urutia y de doña Juana de Aulestiarfe, de Getxo.

* * *

JOSEBA, hijo de don José de Olañte, de Bilbao.

* * *

MIREN EDURNE, hija de don Juan de Balantzategi y de doña Gregoria de Arkaratz, de Australia.

* * *

ANDER MIRENA, hijo de don Andonin de Olaizola y de doña Mikele Alegria, de Azpeitia.

* * *

JOSEBA MIRENA, hijo de don Kuireka de Agirre y de doña Miren de Odriozola, de Azpeitia.

* * *

MIREN NEKANE, hija de don Toribio de Beaskoetxea y de doña María Dolores Bilbao, de Bilbao.

* * *

JON, hijo de don Ignacio de Arantzamendi y de doña María de Artetxe, de Oñafosa.

* * *

INAKI, hijo de don Alejandro de Orbegoza y de doña Juana de Astigafaga, de Azpeitia.

* * *

INAKI MIRENA, hijo de don Castor de Urtiaga y de doña Petra de Landeta, de Lezama.

* * *

KARMELE PAULE, hija de don José de Uribaldi-Lapikotegi y de doña Natividad de Eloñaga, de Bilbao.

* * *

SABIN JAGOBA, hijo de don Domingo de Afuti y de doña Josefa de Lafañaga, de Zarautz.